

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren ekainaren 13ko 306/2019 Foru Agindua, zeinak onesten baitu 179 eredua, "Etxebizitzak erabilera turistikorako lagatzeko informazio aitortpena", eta zeinak ezartzen baititu hura aurkezteko baldintzak eta prozedura**

Ekainaren 11ko 30/2019 Foru Dekretuak abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua aldatzen du. 111/2008 Foru Dekretuaren bidez arautzen da kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko beharra, 25. artikuluko berria sartzen du, zeinak etxebizitzak erabilera turistikorako lagatzeko informazio aitortpena aurkezteko bete-beharra ezartzen baitu.

Onorio horietarako, erabilera turistikorako etxebizitzat hartuko dira turismoari buruzko Eusko Legebiltzarraren uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 53. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren etxebizitzak eta lege beraren 54. artikuluko 1. apartatuan aipatzen direnak: erabilera turistikorako etxebizitza partikularretako getetako ostatuak.

Kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira etxebizitza alokatzea eta etxebizitzaren zati bat berrakuratzea, hiri errentamentuei eta ondasun higiezinak txandako aprobetxatzeari buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legean jasotzen den bezala.

Foru agindu honen xedea da aitortpen eredua onestea, bai eta hura aurkezteko modua, epea eta tokia ere, eta informazio betebeharrak berri hori betetzeko gainerako datu garrantzitsuak ere bai, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren 25. artikuluko 5. apartatuak ezartzen duen gaikuntzaren arabera.

Horrela, 179 eredua, etxebizitzak erabilera turistikorako lagatzeko informazio aitortpena, onesten da, bai eta hura nola izapidetu ere.

Informazio aitortpenak datu hauek jaso beharko ditu:

a) Turismo erabilerarako lagatuko etxebizitzaren titularraren identifikazioa, baita etxebizitza turismo erabilerarako lagatzen duen eskubidearen titularrarena ere, pertsona bera ez izatekotan.

Identifikazioa izen-deiturez, sozietatearen izenaz edo izen osoaz eta identifikazio fiskaleko zenbakiaz egingo da, edo aitortpen eredua onesten duen foru aginduan ezarritakoaren arabera.

Horretarako, lagatzen den eskubidearen titulartzat hartuko dira turismo erabilerarako lagatuko etxebizitzaren jabetza eskubidearen, multijabetza kontratuen, denbora partzialeko jabetzaren edo antzeko formulen, errentamenduaren, berrerrentamenduaren edo beste edozein erabilera edo gozamen eskubideren titularrak, azken batean etxebizitza horren erabileraren lagatzaile direnak.

b) Higiezinaren identifikazioa, katastro erreferentzia edo zenbaki finkoa adierazita, aitortpen eredua onesten duen foru aginduan ezarritakoaren arabera.

c) Pertsona edo entitate lagatzaileen identifikazioa, eta zenbat egunez gozatuko den etxebizitza turismo erabilerarako.

Identifikazioa izen-deiturekin, sozietatearen izenaz edo izen osoaz eta identifikazio fiskaleko zenbakiaz egingo da, edo aitortpen eredua onesten duen foru aginduan ezarritakoaren arabera.

Horretarako, aurretik adierazi den zerbitzua erabiltzen duten pertsonen identifikazio agiriaren kopia gorde beharko dute etxebizitza turismo erabilerarako lagatzen dutenek.

d) Eskubidea lagatzen duen titularrak etxebizitza turismo erabilerarako lagatzeko zerbitzuaren truke jasotako zenbatekoa edo, hala badagokio, haren doakotasunaren adierazpena.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

#### **Lehena. 179 eredia onestea**

Onesten da 179 eredia, etxebizitzak erabilera turistikorako lagatzeko informazio aitortpena, zeinaren edukia foru agindu honen eranskinean baitoa.

#### **Bigarrena. Nork aurkeztu behar duen 179 eredia**

179 eredia aurkeztu behar dute erabilera turistikorako etxebizitzaren lagatzaileen eta lagapen hartzaileen arteko bitartekaritza egiten duten pertsonak eta entitateek, kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko beharra arautzen duen abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren 25. artikulua 1. eta 3. apartatuak ezartzen dituen baldintzetan.

#### **Hirugarrena. Aitorpenaren xedea**

179 aitortpenaren xedea da eranskinean jasota dagoen informazioa, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen eta atzerrian diren ondasun eta eskubideen berri emateko beharra arautzen duen abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren 25. artikulua aurreikusitakoaren arabera.

#### **Laugarrena. Aurkezteko epea**

179 eredia hiru hilean behin aurkeztu beharko da. Hiruhileko naturalean egindako eragiketen zerrenda aurkeztuko da, aitortpena zein hiruhilekori dagokion, hurrengo hilabete naturaleko lehenengo eta azken egunaren artean.

#### **Bosgarrena. 179 eredia aurkezteko modua, baldintza orokorrak eta Internet bidez aurkezteko prozedura**

1. 179 eredia, etxebizitzak erabilera turistikorako lagatzeko informazio aitortpena, modu telematikoa aurkeztu beharko da derrigorrean, Internet bidez.

2. "Zerga ereduak" laguntza programaren bidez osatuko da 179 eredia, eta telematikoki aurkeztuko, "Aldundi digitala" egoitza elektronikoaren bidez. Programa hori Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak garatu du. 179 eredian adierazi beharreko aitortpenaren identifikazio zenbakia sekuentzia bat izango da; haren lehenengo hiru digituak 179 kodea izango dira eta hurrengo laurak ekitaldiari dagozkionak.

Laguntza programa Arabako Foru Aldundiaren webgune ofizialetik ([www.araba.eus](http://www.araba.eus)) deskargatu ahal da eta, haren bitartez, foru agindu honetan onetsitako eredia eskuratu.

3. 179 ereduaren aurkezpen telematikoa 39/2010 Foru Aginduaren 3. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz egingo da. Agindu horren bidez, zergapeko eta eredu jakin batzuk Internet bidez modu telematikoa aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dira.

Xedapen iragankor bakarra. Erabilera turistikorako etxebizitzaren 2018ko ekitaldiko eta 2019ko ekitaldiko lehenengo hiruhilekoko informazio aitortpena

Erabilera turistikorako lagatuko etxebizitzaren 2018ko ekitaldiko informazio aitortpena urtean behin bakarrik aurkeztu beharko da, 2019ko uztailaren 1a eta 31 bitartean. Bestalde, 2019ko ekitaldiko lehenengo hiruhilekoari dagokion aitortpena 2019ko uztailaren 1a eta 31 bitartean aurkeztu beharko da.

Azken xedapen bakarra. Indarrean sartzea

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta 179 eredua, etxebizitzak erabilera turistikorako lagatzeko informazio aitortpena, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako erabilera turistikorako etxebizitzaren lagapenei aplikatuko zaie, baldin eta haien bitartekaritza data horretatik aurrera egin bada.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 13a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

*JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ*

*Ogasun zuzendaria*

*TERESA VIGURI MARTÍNEZ*

## ERANSKINA

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	<b>Etxebizitzaren erabilera turismo helburuetarako lagatzea</b> HIRUHILEKO INFORMAZIO AITORPENA	1. ORRIALDEA
		<b>179</b>

Ogasun, Finantza eta  
Aurrekontu SailaDepartamento de Hacienda,  
Finanzas y Presupuestos

IDENTIFIKAZIOA		
IFZ	Abizenak eta izena / Sozietatearen izena	900 Aitorpenaren identifikazio zk.

SORTZAPENA		AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA	
Ekitaldia	<input type="text"/>	Ordezko aitorpena	901 <input type="text"/> <input type="text"/>
Epealdia	<input type="text"/>	Aitorpen osagarria	901 <input type="text"/> <input type="text"/>
		Aurreko aitorpenaren identifikazio zk.	902 <input type="text"/>

HARREMANETAN JARTZEKO PERTSONA	
Abizenak eta izena	13 <input type="text"/>
Telefonoa	12 <input type="text"/>
Helbide elektronikoa	14 <input type="text"/>

LEGEZKO ORDEZKARIA	
Legezko ordezkariaren IFZ	11 <input type="text"/>

AITORPENAREN LABURPENA	
Aitortutakoak (eragiketak), guztira	15 <input type="text"/>
Eragiketen zenbatekoa, guztira	16 <input type="text"/>

Laguntza Programa ■ Programa de Ayuda


**LEGE OHARRA DATUEN BABESA**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (Datuak babesteko erregelamendu orokorra) jasotakoa betetzeko xedearekin, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko Zergadunen Fitzategian sartuko direla. Datu horien tratamenduak zergak kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko egiten dira.

Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.

Erregelamendu horretan aitortzen diren datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko, haien aurka egiteko eta datuak mugatzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz, Araba).

Informazio gehiago: <http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

 <p>Arabako Foru Aldundia Euzko Legebiltzariaren Euzko Legebiltzariaren Euzko Legebiltzariaren www.araba.eus</p>	<p><b>Etxebizitzen erabilera turismo helburuetarako lagatzea</b></p> <p>HIRUHILEKO INFORMAZIO AITORPENA</p>																					
	<p>2. ORRIALDEA</p> <p><b>179</b></p>																					
<p>Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos</p>																						
<p>Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila</p>																						
<p><b>IDENTIFIKAZIOA</b></p>																						
IFZ	Abizenak eta izena / Sozietatearen izena																					
<p><b>AITORTUAREN ERREGISTROAREN DATUAK</b></p>																						
<p>Aitortuaren erregistroaren identifikatzailea <input type="text" value="100"/></p>																						
<p><b>AITORTUA (TITULARRA / LAGATZAILEA)</b></p>																						
101	Gakoa	102	IFZ	103	Izena edo sozietatearen izena	104	Legesko ordezkariaren IFZ	105	Herr. kod.	106	Egotza herrialdeko identifikazio mota	107	Egotza herrialdeko identifikazio zk.									
<p><b>LAGAPEN-HARTZAILEA</b></p>																						
201	IFZ	202	Izena edo sozietatearen izena	203	Legesko ordezkariaren IFZ	204	Herr. kod.	205	Egotza herrialdeko identifikazio mota	206	Egotza herrialdeko identifikazio zk.											
<p><b>HIGIEZINAREN DATUAK</b></p>																						
301	Higiezinaren egoera	302	Katastro erreferentzia	303	Udalerraren kod.	304	Udalerraren izena	305	Probintziaren kod.													
306	Bide mota	307	Bidearen izena	308	Zk. mota	309	Zk.	310	Kalifikatzailea	311	Etxadia	312	Ataria	313	Eskallera	314	Solairua	315	Atea	316	Osagarria	
<p><b>ERAGIKETAREN XEHETASUNAK</b></p>																						
401	Bitartekaritza data	402	Lagapenaren hasiera data	403	Egun k.p.	404	Eragiketaren zenbatekoa	405	Kontratu zk.	406	Ordaintzeko bidea	407	Ordaintzeko bidearen id.									
<p>Laguntza Programa ■ Programa de Ayuda</p>																						